



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 28a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuari eskatzen zaio bete ditzan Torturaren prebentziorako Europar Batzordearen txostenean jasotako gomendioak eta Torturaren Aurkako Hitzarmenean ezarritako printzipioak. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da presta dezan Nafarroako gizarte zerbitzuen zorroa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du zilegitasunez eraturako errepublikaren eta legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidaturako altxamendu militar faxista. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azkartu ditzan Arradako kontzejuan ur edan-garriaren sarea eta hoditeria berritzeko lanak. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trenaren aurreko proiektua mantentze aldera. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguneratu dezan Familientzako Laguntzen Gida. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Renferen arrazionalizazio plana erretira dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu Nafarroako Gobernuaren trenbide-arloko jarduera eta kudeaketa. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Museoen Nazioarteko Egunarekin bat egitekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratzen baitu “INASA” enpresari bultzada berria emateko ahaleginak alferrikakoak gertatu izana. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, beken emaitzak aurten argitaratzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (12. or.).
- Galdera, laurehun ekografia enpresa pribatu batera bideratzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruaren dimisioari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroak parte hartzen duen lau erakunde europarrak exekutiboak ote diren, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakitekoa zein arrazoik galarazi dion Nafarroako Gobernuari Nafarroako Itzulia antolatzeko aurrekontuetan aurreikusitako eta esleitutako zenbatekoa 2013an proba horretara bideratzea, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (14. or.).
- Galdera, kide guztiak langabezian dituzten familia nafarren egoera konpontzeko eta/edo arintzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berria indarrean sartu aurretik eskatutako gizarteratze errentak ukatzeari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (17. or.).
- Galdera, abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatiaren eraikuntzak Tafallako eta Nafarroako erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eraginari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako zerbitziburuei buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (19. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuari eskatzen zaio bete ditzan Torturaren prebentziorako Europar Batzordearen txostenean jasotako gomendioak eta Torturaren Aurkako Hitzarmenean ezarritako printzipioak.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari eskatzen baitzazio bete ditzan Torturaren prebentziorako Europar Batzordearen txostenean jasotako gomendioak eta Torturaren Aurkako Hitzarmenean ezarritako printzipioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-NaBai parlamentu-taldeen, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

CPT, Torturen Prebentziorako Europako Batzordeak espainiar Estatuan oraindik orain tortura errealitate bat dela egiaztatu zuen 2011ko maiatzaren 30etik ekainaren 13ra bitartean egin zuen bisitan, eta halaxe salatu du bisita horren ondorioa den txostenean, berriki ezagutzera eman duena, alegia. Txostenak 10 euskal herritarrek egindako tortura salaketak zeharo sinesgarriak direla nabarmentzen du, eta tratatu txar horien jatorrian inkomunikazioa dagoela ohartarazten du.

Aipamen hori CPTk berak eta nazioarteko beste erakunde batzuek urtero egin ohi duten arren, espainiar Estatuak inoiz ez ditu ohartarazpen horiek aintzat hartu, eta CPTk halaxe dio orain berriz ere bere txostenean, non espainiar Gobernuari leporatzen dion ezer gutxi egitea tortura kasuak eragozteko.

CPTk agerian utzi du berriz ere espainiar Estatuak ez duela tortura behin betiko desagerrarazteko borondaterik, torturatzailerak sistematikoki babestu eta babesten dituela eta errealitate horren edozein salaketa eragozten duela. Horren adibide argia da Europako Batzordeak berak pairatu duen egoera, Guardia Zibilak CPTko behatzaileen lana oztopatu baitzuen, txostenean salatzen duenez.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du CPT-Torturen Prebentziorako Europako Batzordeak argitaratu berri duen txostena eta espainiar Gobernuari eskatzen dio bertan eginiko gomendioak eta Torturaren aurkako Konbentzioan ezarritako printzipioak eraginkortasunez bete ditzala, eta elkartasuna adierazten dio tortura eta tratatu txarrak pairatu dituen pertsona orori.

2. Nafarroako Parlamentuak espainiar Gobernuari premiatzen du Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utz dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Auzitegi Nazionalaren desagerpena eskatzen du, berme prozesalak betetzen ez dituelako, eta torturak salatuta ere lortutako deklarazioak onartzen dituelako.

4. Nafarroako Parlamentuak Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa paira-

tu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizial guztiak berrikus eta bertan behera utz ditzala.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 1ean

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Maiorga Ramírez Erro eta Asun Fernández de Garaialde

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da presta dezan Nafarroako gizarte zerbitzuen zorroa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita presta dezan Nafarroako gizarte zerbitzuen zorroa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak ezarri zituen Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroa eta hura gaurkotzeko prozedura. Arauketa hori oinarritzkoa da, komuna erkidego guztientzat, baina horietako bakoitzak bere zerbitzuen zorroa ezarri ahal eta behar du.

Zerbitzuen zorro horietan zerbitzu komun katalogoa jaso behar da, baita autonomia erkidego bakoitzak egokitzen jotzen dituen zerbitzu osagarriak ere, eta prestazio horien bermeak.

16/2012 Errege Dekretuaren ondorioz gure osasun sistemak unibertsala izateari utzi zion, eta

osasun zerbitzuen zorroaren antolamendu berri bat diseinatu zen; hala, koordainketa ezarri zen prestazio horietako batzuetarako.

Nafarroak zenbait prestazio osagarri ezarri ditu, baita horiei dagozkien bermeak ere, baina zerbitzu horiek sakabanatuta daude maila juridiko desberdinetako 50 bat arautan. Gainera, horietako batzuk zahar samarrak dira eta batzuek 25 urte baino gehiago ere badituzte.

2006-2012 urteetarako Nafarroako Osasun Planean aipatzen zen beharrezkoa zela osasun zerbitzuak berrikusi eta gaurkotzea, eta dokumentu bateratu batean biltzea bai nahitaezkoak diren osasun sistema nazionaleko oinarritzko osasun zerbitzuak, bai Nafarroan osagarri diren beste batzuk ere.

Gure ustez, inoiz baino beharrezkoagoa da, PPrene Gobernua egiten ari den eraso dela-eta, gure osasun zerbitzuak eguneratu eta berrikustea, bai eta haiek "blindatzea" ere, unibertsalak eta doakoak izan daitezen.

Ospitalearteko garraioak edo "Biziaren autobusak" erakutsi du, funtzionamenduan daramatzan urteetan –mila erabiltzaile baino gehiago ditu–, oso ondo funtzionatzen duela eta oso eragin positiboa duela erabiltzaileengan.

Zerbitzu horrek zaintzen ditu duten gaixotasuna dela-eta oso ahul dauden pertsonak, eta erakutsi du baduela baliagarritasun terapeutikoa; hori dela eta, uste dugu osasun zerbitzutzat hartu behar dela.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Osasun Zerbitzuen Zorroa presta dezan.

2. Nafarroako osasun zerbitzuen katalogoari buruzko azterketa bat susta dezan, hura eguneratu eta berrantolatze aldera.

3. Osasun zerbitzuen katalogoan sar dezan ospitalearteko garraioa edo "Biziaren autobusa".

Iruñean, 2013ko maiatzaren 9an.

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du zilegitasunez eratutako errepublikaren eta legez eratutako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu zilegitasunez eratutako errepublikaren eta legez eratutako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Jakina denez, 2010eko apirilaren 14an, kereila bat aurkeztu zen Argentinako zigor arloko epaitegi batean, Francoren diktadurak 1936ko uztailearen 17tik (kolpe hiritar-militarraren hasiera) 1977ko ekainaren 15era bitartean (lehen hauteskunde

demokratikoak egin ziren eguna) Espainiako Estatuan eginiko genozidio delitu eta/edo gizateriaren aurkako krimenengatik.

Biktimen senideek eta Argentinako eta Espainiako elkarte sozial eta giza eskubideen arlokoek aurkeztu zuten. Horiekin bat egin dute, edo laster bat egiteko prestatzen ari dira, ehunka auzi-jar-tzaile eta salatzaile partikular, diktaduraren azken etapako errepresaliatuak eta askotariko elkarteak: kulturalak, sozialak, sindikalak eta abar.

4591/10 zenbakidun kereilak salatzen ditu "Francoren erregimenak eta horren egileek 1936ko uztailearen 17tik 1977ko ekainaren 20ra bitartean eginiko genozidio delituak eta, subsidia-rioki, gizateriaren aurkako krimenak".

Kereila horren izapidetzeak arrakala bat irekitzen du frankismoa babesten jarraitzen duen zigorgabetasun-harresian. Gaur egun, bada aukera Argentinako epaitegi horren aurrean aurkeztu eta Espainiako Estatuan ukatzen den justizia eskatzeko. Estatu osoan barrena jasotzen ari diren testigantza dokumentatuak lagungarriak dira zital-keria haren neurriaz jabetzeko. Helburua da gure historia hurbilaren zati ezinbesteko bat berresku-ratzea, haren faltsutzea eragozte, eta erantzukizunak eskatzea erregimen hura berrogei urtez mantendu zutenei.

Kereilaren oinarri juridikoa da jurisdikzio edo justizia unibertsalaren printzipioa, zeinaren bidez edozein herritako epaitegiek jardun ahal eta behar baitute nazioartea kaltetu eta iraintzen duten krimenak gertatzen direnean.

Eta hori horrela da Espainiako Estatuko Auzitegi Gorenaren nahia delako Amnistiaren Legeak Espainiako jurisdikzioa salbuestea diktaturako krimenak ikertzetik, garrantzizko bi konturi izkin eginez: batetik, lege hori Konstituzioa aldarrikatu baino lehen onetsi zela —ondorioz, ulertu behar da ez diola aurka egin Konstituzioak aldarrikatzen duen justiziarako eta gizakien oinarritzko eskubideen babesarako eskubideari eta, beraz, gizateriaren aurkako krimenen arduradunak epaitzeari—, eta, bestetik, lege hura egin baino lehen Espainiak nazioartean konpromisoa hartua zuela nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorren arabera delitu direnak egin dituztenak pertsegitzeko, baita jokaera hori barneko zuzenbidean aurreikusita egon gabe ere. Preskribitzen ez duten krimenak izateaz gain, nazioko eta nazioarteko legedia eta jurisprudentzia finkatuaren arabera, non edo noiz egin ziren kontuan hartu gabe ikertu eta zigortu beharrekoak dira.

Egin nahi dena ez da bakarrik desagertuak berriro desagerraraztea, baizik eta haien desagerrarazleak ere desagerraraztea. Galarazi nahi da haien krimenak ezagutzea, haien izenak: hiltzaileenak, torturaztaileenak, haur-bahitzaileenak. Falaziaz argudiatzen da denak hilda daudela, hildakoei eta beren familiei justiziarik beharko ez balute bezala, eta isilarazten da, nahita gainera, ehunka direla bizirik dauden biktimak eta errepresoreak, eta azken horiek epaituak eta penalki zigortuak izan daitezkeela, eta hala izan beharko luketela.

Atzerriko epaitegien jarduna herriek eskura duten arma indartsua da, herri barruko justizia faltaren aurka borrokatzeko. Besteak beste, zigorgabetasunaren aurkako nazioarteko salaketa bihurtzen da; ziurtatzen du biktimek epaile baten aurrean deklaratu ahal izatea; krimena egin zen lurraldean ukatzen diren ikerketa judizialak abian jartzea; bidea ematen du arduradunak deklaratzera deitzeko eta, krimenetan parte hartu izanaren zantzu sendoak izanez gero, haien aurkako espetxeratze agindua ematea eta, horretarako, nazioarteko atxilotze-aginduak ematea; agerian uzten du ezen, nazioarteko jazarpenaren eta aurkitzen diren tokian atxilotuak izateko arriskuaren aurrean, zigorgabetasuna duten munduko toki bakarra dela delitua egin zuten bera.

Hori dela eta, funtsezkoa da, partikularren salaketez gain, erakunde publikoek konpromisoa hartzea kereila babeste aldera lan egiteko, eta, horregatik, Memoriaren Autobusak ondoko erabaki proposamenak aurkezten ditu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Parlamentu honek salatzen du, berriz ere, 1931n zilegitasunez eraturako errepublikaren eta

legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Francisco Franco Bahamonde jeneralak 1936ko uztailean zuzendutako altxamendu militar faxista.

2. Parlamentu honek salatzen du altxamendua ondotik ezarri zen diktadura, zeinean odolez eta suz erreprimitu baitzen disidentziaren eta askatasunaren, justizia sozialaren eta eskubide individual nahiz kolektiboen aldeko borrokaren arrasto oro.

3. Parlamentu honek salatzen du nekazaritza, industriako eta finantzetako oligarkien parte handi batek eta Eliza Katolikoaren hierarkiak izandako jokabidea; izan ere, lehenbizi kolpea babestu zuten eta, ondoren, ezarritako erregimen faxista.

4. Parlamentu honek babesten ditu frankismoak errepresaliatutako pertsonen eskubideak eta aldarrikapenak, eta Estatuko administrazio publikoei, hau da, erakunde politiko eta judizialei, exijitzen die beharrezkoak diren neurriak har ditzatela 1936ko uztaileko altxamendu militarren, erregimen frankistaren eta Estatu-terrorismoaren errepresaliatuei honako eskubideok bermatzeko: erregimen hari buruzko daukaten egiarako eskubidea baliatu ahal izatea, haren jarraitzaileek, historia berridazteko ahaleginei, aurka egite aldera; egiazko justiziarako eskubidea, eginiko gizateriaren aurkako krimenen arduradunen egungo zigorgabetasun egoera gainditze aldera; frankismoaren ehun milaka biktimei ordain duin eta bazterketarik gabekoa ematea eginiko eskubide-urraketengatik; eta, azkenik, gizarte osoaren eskubidea aldaketa soziopolitiko, juridiko eta instituzionalak ezartzeko, berriro halakorik ez gertatzea ziurtatze aldera.

5. Konpromiso-ildo horri jarraikiz, Parlamentu honek adierazten du babestu eta bat egiten duela frankismoan eginiko giza eskubideen urraketan arduradunaren aurka Argentinaren Errepublikako Buenos Aires hiriko 1. epaitegian genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak egiteagatik aurkeztutako 4591-10 kereilarekin, zeinen ikerketa María Servini de Cubría epaileak baitarama.

6. Parlamentu honek herritarrek animatzen ditu frankismoaren krimenen aurkako kereila babestera, bai frankismoan zuzenean errepresaliatuak izan zirenak edo hala izan zirenen ahaideak kereila-jartzaile gisa aurkeztuz, bai diktadura salatuz eta garai hartako krimenen eta kriminalen aurkako kereilarekin bat eginez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 13an.

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro, Bakartxo Ruiz Jaso eta Xabier Lasa Gorraiz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azkartu ditzan Arradako kontzejuan ur edangarriaren sarea eta hoditeria berritzeko lanak.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita azkartu ditzan Arradako kontzejuan ur edangarriaren sarea eta hoditeria berritzeko lanak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2011ko urrian, Murillo el Cuendeko Udalak eskatu zuen 2009-2012 aldirako Toki Azpiegituren Planean sartzeari, urteko arrazoiengatik, Arradako kontzejuko sarea berritzeko inbertsioa. Toki

Administrazioeko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek horren aldeko txostena eman zuten, eta 2012ko zenbait foru agindutan "urgentzia nabaririkotzat" jo zen Arradako kontzejuko hodi nagusia eta gainerako kaleetako sarea berritzea eta gainerako kaleak zolatzea, eta lan horiek egiteko aurrekontua zehaztu zen. Zuzendaritza Nagusiak "epe laburrean beharrezkoa zen obratzat" jo zuen aipatu jarduketara.

Planean sartu ahal izateko baldintza zen 0,30era igotzea kontribuzioaren zerga oinarria, eta beste obrarik ez egitea. Udalak bete egin ditu Nafarroako Gobernuak jarritako baldintzak.

Une honetan, Toki Administrazioeko zuzendari nagusiak, martxoaren 27ko 147/2013 Ebazpenaren bidez, aipatu lanak sartu baditu ere inbertsioak finantzatzeko salbuespeneko araubidean, Nafarroako Gobernuak prozesua atzeratzen ari da, eta lanak ez dira hasi.

Kontzejuko biztanleek uste dute ezin dutela jarraitu hoditeria zaharkituekin, ur galera handiekin eta ur edangarria eskuratu ezinik.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren izapideak azkartu ditzan, Arradako kontzejuan ur edangarriaren sarea berritzeko eta beharrezkoak diren hodiak sartzeko lanak berehala has daitezten.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trenaren aurreko proiektua mantentze aldera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko, negoziazioei Prestazio Handiko Trenaren aurreko proiektua mantentze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eledun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Duela gutxi jakin dugu garrantziko aldaketa eginen dela prestazio handiko trenaren proiektuan, zeinak, aurreikusitakoaren arabera, gure erki-degotik igaro eta Aragoi eta Euskal Y-arekin lotu behar baitzuen, halako moduz non bai pertsonak bai salgaiek Europarako sarbide zuzena izan zezaten, horrek Nafarroarako ekar zezakeen garapenarekin.

Antza denez, bizi dugun egoera ekonomiko aitzakiatzat hartuta, PPK erabaki du, UPNrekin elkar hartuta, prestazio handiko trenbidearen zati hori Castejón eta Iruña arteko 70 kilometroetara bakarrik mugatzea, eta hori irrigarria da benetan. Bestalde, iragarri da aurreko proiektuaren orde bestea bat gauzatuko dela, nabarmen merkeagoa, zeina baita hirugarren errail bat eraikitzea, gure trenbideak nazioarteko zabalarekin bateragarri egiteko. Baina emaitza hori ez da inola ere hasierako proiektuaren baliokidea.

Halabeharrez, hemeroteka kontsultatzean ikusi dugu 2006an Nafarroako Gobernuko Herri Lanetako kontseilaria zen Álvaro Miranda jaunak "lardas-keriatzat" jo zuela aipatu hirugarren errail hori. Beraz, deigarria da UPNren irizpide aldaketa.

Nafarroako abiadura handiko korridorea dela-eta, PPreko Gobernua egiten ari den kudeaketa erabat negargarria da. Eta ulertezina da UPNk halako kaltea onartzea Nafarroarentzat. Nafarroak hamar urte baino gehiago daramagu proiektu horren alde borrokatzen, jada errealitate bilakatu zena eta sinesgarritzat jotako denbora-epean gauzatzeko finantzaketa eta epeak zituena, baina orain proiektu hori zapuztu dute.

Proiektu berri honekin Nafarroarentzat garrantzitsua den aukera bat galduko dugu; izan ere, Kantauri-Mediterranea korridorearen parte izateari utziko diogu, zeinak bidea ematen baitzuen bi itsasoen artean salgaiak garraiatzeko, bai eta bi gune logistiko garrantzitsu sortzeko, bata Noainen eta beste bat Tuteran, eta halako balizko proposamen bat Sakanan gauzatzeko ere. Halaber, ezin dugu ahaztu asmo hori jasota zegoela abiadura handiko trenbide-lotura sare bat garatzeko proiektu europar batean, eta hemendik aurrera Nafarroa proiektu horretatik bazterturik geratuko dela.

Proposatzen den konponbide berria, behin-behineko dela esaten bada ere, behin betikoa izanen da azkenean; izan ere, izanen duen kostuak, bai gainegiturari bai geltokitako sarbideei eta trenen trafikoaren kudeaketa berrirako beharrezkoak diren beste alderdi tekniko batzuei dagokienez, bideraezina egiten du etorkizunean trazadura berri bat egitea. Finantzaketari dagokionez, zaila da une honetan obra hori abian jartzea, eta etorkizunean ez du justifikazio ekonomikorik izanen behin betiko konponbidea egiten hasteak. Hirugarren erraila egiten bada, inoiz ez da osatuko abiadura handiko trazadura osoa, horrek egiazko diru-xahuketa ekarriko bailuke.

Azaldutako guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Gobernuari exijitzea berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Sustapen Ministerioaren bidez, Prestazio Handiko Trenaren aurreko proiektua lehenago aurreikusitako moduan mantentze aldera, Nafarroak jarrai

dezan Zaragoza eta Euskal Y-aren arteko Pirinioetan zeharreko Oinarrizko Sarean, gure ustez hori baita gure Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta industrialerako aukerarik onena.

2. Erabat aurka agertzea Nafarroako prestazio handiko trenaren alternatiba gisa hirugarren errail bat egiteari dagokionez.

3. UPNren Nafarroako Gobernua eta haren lehendakari Yolanda Barcina andrea gaitzestea,

Sustapen Ministerioarekin eginiko kudeaketa negargarria dela-eta; izan ere, onartu du Nafarroa bai Kantauri-Mediterraneo abiadura handiko proiektutik bai Europako ardatzetik kanpo geratzea, eta horrek kalte larria egin dio gure lurraldearen garapen ekonomiko eta industrialari.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguneratu dezan Familientzako Laguntzen Gida.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eguneratu dezan Familientzako Laguntzen Gida.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "Familientzako Laguntzen Gida" egunera dezan.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak, urtero bezala, familia guztien eskuragarri jarri du "Familientzako Gizarte-laguntzen Gida 2013" izenekoaren edizio eguneratua. Bertan informazio osoa, praktikoa eta argia ematen da Estatuan familientzako dauden gizarte laguntzei

buruz, arlo desberdinetan (gizarte segurantzaren, lana, fiskalitatea, gizarte zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza...). Horretaz gain, laguntza horiekin zerkusua duten erakundeek helbideak eta estekak jasotzen ditu.

Nafarroako Gobernuak "Familientzako Laguntzen Gida" argitaratu zuen 2005ean. Bertan, Foru Gobernuaren departamentuek familientzat bideratzen zituzten gizarte laguntzei buruzko informazioa jasotzen zen. Gaur egun, Gizarte Politiketako Departamentuak, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuaren webgunearen bitartez, herritarren eskuragarri jartzen ditu Nafarroako Gobernuak familiei eskaintzen dizkien zerbitzu, baliabide eta laguntza ekonomikoak. Horretarako, webguneko on line zerbitzuen bilatzailea erabili behar da.

Nafarroako familiei informazioa lortzeko erraztasunak emate aldera, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Gobernuak 2005ean prestatu zuen "Familientzako Laguntzen Gida" egunera dezan.

2. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak prestatutako "Familientzako Gizarte-laguntzen Gida"ren ereduari jarrai diezaion eta aipatu gida urtero egunera dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Renferen arrazionalizazio plana erretira dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Renferen arrazionalizazio plana erretira dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Sustapen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hedabideen bitartez ezagutu dugu "Ineco" izeneko Sustapen Ministerioaren aholkularitza zerbitzuak eginiko azterlan bat, zeinean agerian jartzen baita Espainiako Gobernuak asmoa duela distantzia ertaineko 48 tren linea kentzeko, gaur egun urtean 1,65 milioi pertsona garraiatzen dituztenak, eta gutira 127 lineen eskaintza murriztea, urtean 86,5 milioi euroko aurrezpena lortze aldera.

Gobernuak kenduko dituen lineen artean daude, besteak beste, Iruña-Castejón linea, zeinak 783.000 euroko defizita eta urteko 25.000 bidaiari baititu, eta Zaragoza-Castejón linea, zeinak 651.000 euroko defizita eta urteko 69.000 bidaiari baititu.

Askotan, Administrazioak herritarrei eman beharreko zerbitzuak defizitarioak izaten dira; izan

ere, herritarren eskubideak, mugikortasunerako eskubidea kasu, ziurtatu behar dira.

Gainera, bada kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, eta da tren lineak kentzeak Renferko langileen plantilla-murrizketa ere ekar lezakeela eta, horren ondorioz, langabe-kopurua, gaur egun hain handia dena, are gehiago handitzea, logikoa denez.

PP, UPNren adostasunarekin, Nafarroarekiko gauzatzen ari den tren garraioari buruzko politikak oso kaltegarriak dira gure erkidegorako; izan ere, alde batetik, Nafarroarako abiadura handiko proiektutik eta haren Europarekiko konexiotik kanpora utzi nahi gaituzte, eta horrela uzten gure erkidegorari bere garapen ekonomikorik onena ahalbidetzeko kokaleku on bat eman ezinik, eta, bestetik, beste garraio biderik ez duten pertsonak edo haiek erabiltzea ondo datorkienek erabiltzen dituzten distantzia ertaineko lineak kendu nahi dituzte.

Gure ustez, 25.000 erabiltzaile Iruña-Castejón linearako eta 69.000 Zaragoza-Castejón linearako; kopuru esanguratsuak eta aintzat hartzeko modukoak dira.

Azaldutako guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Espainiako Gobernuari exijitzea, Sustapen Ministerioaren bidez, erretira dezan Renferen arrazionalizazio plana, distantzia ertaineko lineak kentzearekin zerikusia duena.

2. Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du egiazko eztabaida irekitzea gizarteari, erabiltzaileei, indar sozialei, sindikatuari eta enpresaburuari, kaltetutako toki entitateei eta abarri, gaia aztertu eta etorkizunerako konponbide bat adosteko, herritarrek mugikortasunerako duten eskubideari erantzun egokia ematea ahalbidetzeko duena.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu Nafarroako Gobernuaren trenbide-arloko jarduera eta kudeaketa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu

Nafarroako Gobernuaren trenbide-arloko jarduera eta kudeaketa arduragabe eta negargarriak.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, Museoen Nazioarteko Egunarekin bat egitekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Museoen Nazioarteko Eguna ospatzearen alde dagoela azaltzen du.

2.- Nafarroako gizartea gonbidatzen du erkidegoko museo publiko eta pribatu desberdinak bisitatzerara.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratzen baitu “INASA” enpresari bultzada berria emateko ahaleginak alferrikakoak gertatu izana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen du hartzekodunen konkursoan murgilduta dagoen “INASA” enpresari bultzada berria emateko proiektua gauzatzen saiatzeko ahaleginak alferrikakoak gertatu izana makineria saltzeko kontratu bat sinatzea eragozteko ahaleginean; izan ere, hori lortzea funtsezkoa zen enpresari bultzada berria eman ahal izateko.

Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen du makineriaren salmenta-kontratuaren sinatzaileek agertutako sentsibilitate sozial eskasa, erreferentzia gisa hartu behar dena eta agerian geratu dena; izan ere, interesatuei ez diete aukerarik ere eman kasuko eskaintza “Inasa”ko arduradunen, enpresa enkante-egilearen eta hartzekodunen lehiaketaren kudeatzaileen aurrean azaltzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua animatzen du azter ditzan balizko formula juridikoak, etorkizunean ahalbidetuko dutenak, hartzekodunen eskubideen kalterik gabe, enplegua sortzearen interes orokorra egungo araudiarekin defenda daitekeen baino hobeto defendatu ahal dadin, eta horretarako beharrezkoak diren lege aldatetarik susta ditzan, bai Nafarroako Parlamentuan, bai Diputatuen Kongresuan, xede hori lortze aldera.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiago izateagatik, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die “Inasa”ko langileei; izan ere, enpresa horretan zuten lanpostura itzultzeko itzaropena berpiztu ondoren, ezin izanen dute halakorik egin, tamalez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, beken emaitzak aurten argitaratzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, beken emaitzak aurten argitaratzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik aurten ez dira oraindik argitaratu beken emaitzak? Emaitza horiek noiz argitaratzeko du asmoa departamentuak?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, lauhun ekografia enpresa pribatu batera bideratzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, lauhun ekografia enpresa pribatu batera bideratzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Vera andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zergatik bideratu dira lauhun ekografia enpresa pribatu batera? Zergatik erraki zerrendako lauhun paziente? Zein izan da horren guztia-
ren kostua? Nola bateratzen da hori Itunen Planarekin?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garai-
alde y Lazkano

Galdera, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruaren dimisioari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruaren dimisioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraizak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Jakin dugunez, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruaren dimititu egin du, eta, horren garrantzia eta esangura kontuan hartuta, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer arrazoi dela-eta aurkeztu du dimisioa Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruak?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, jakitekoa Nafarroak parte hartzen duen lau erakunde europarrak exekutiboak ote diren.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroak parte hartzen duen lau erakunde europarrak exekutiboak ote diren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Foru Araubideko Batzordean izapidetzeko:

Foru Araubideko Batzordeak duela gutxi egini-ko bilkura batean, foru parlamentari honek egini-ko galdera bati erantzuterakoan –galdera zen Nafarroak EAE-Akitania Euroerregioan sartzeko balizko eskaera egiteari buruzkoa–, Gobernu-ko lehen-
dakarriak horren aurkako iritzia agertu zuen, erakunde hori ez dela exekutiboa argudiatuta.

Erantzun berean, Gobernuko lehendakariak adierazi zuen Nafarroak baduela jada presentzia Europan ondoko erakundeen bitartez: Europako Itsasaldeko Eskualde Periferikoen Konferentzia, Europako Erregio Mugakideen Elkarte, Europako Eskualdeen Ikerketa eta Berrikuntzarako Sarea eta Pirinioetako Lan Elkarte.

Hona galdera: Lehendakariaren ustez, jadanik kide garen Europako lau erakunde horiek exekutiboak dira? 1082/2006/EE Erregelamenduaren babesean eraturako euroerregio bat (Lurralde-lan-kidetzako Europako Taldea) baino exekutiboagoak al dira?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakitekoa zein arrazoik galarazi dion Nafarroako Gobernuari Nafarroako Itzulia antolatzeko aurrekontuetan aurreikusitako eta esleitutako zenbatekoa 2013an proba horretara bideratzea.

BIKENDI BAREA AIASTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zein arrazoik galarazi dion Nafarroako Gobernuari Nafarroako Itzulia antolatzeko aurrekontuetan aurreikusitako eta esleitutako zenbatekoa 2013an proba horretara bideratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-

ko Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan.

Iragan maiatzaren 9an zabaldu zen Nafarroako Txirrindulari Batasunaren asmoa dela 2013ko Nafarroako Txirrindulari Itzulia bertan behera uztea.

Antolatzaileen esanetan, 2013ko Nafarroako Txirrindulari Itzulia bertan behera uzteko arrazoietako bat da proba hasi baino 22 egun lehenago ez dakitela ziur Nafarroako Gobernuak xede horretarako esleituriko 70.000 euroko kontusaila erabilgarri ote duten.

Probaren aurrekontuan jasotako guztizko kostua 110.000 eurokoa zen, eta hura gauzatu ahal izateko ekarpen garrantzitsuena Administrazioak eginikoa zen, aurrekontu osoaren % 64 egiten baitu.

Zer arrazoik galarazi dio Nafarroako Gobernuari aurrekontuetan Nafarroako Itzulia antolatzeko esleituriko zenbatekoa ohiko epeetan bideratzea, 2013ko proba gauzatu ahal izateko?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, kide guztiak langabezian dituzten familia nafarren egoera konpontzeko eta/edo arintzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, kide guztiak langabezian dituzten familia nafarren egoera konpontzeko eta/edo arintzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranez, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Berdintasuneko eta Gizarte Txertaketako Ikerketa Katedrak

eginiko txosten baten arabera, kide aktibo guztiak langabezian dituzten familia nafarren kopurua bost bider handiagoa egin da 2007tik 2012ra bitartean.

Potentzialki aktiboak diren kide guztiak lan merkatutik kanpo dituzten familia nafarren kopurua % 11,7 egiten du.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Berdintasuneko eta Gizarte Txertaketako Ikerketa Katedraren bermea duen txostenak bere kezka agertzen du pobrezia larriaren areagotze bizkorra dela-eta, gizarte-hausturarako arriskua baitakar, herritar guztiei eragiten diena.

Egoera horrek dakar oinarrizko eskubide sozialak zalantzan jartzea eta pobrezia larriaren dauden pertsonen ezintasuna pairatzea. Parlamentu-talde hau bat dator azterketa eta baieztapen horiekin.

Zer neurri zehatz ari da hartzen Nafarroako Gobernua edota zer neurri hartzeko asmoa du, kide aktibo guztiak langabezian dituzten familia nafarren egoera konpontzeko eta/edo arintzeko?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berria indarrean sartu aurretik eskatutako gizarteratze errentak ukatzeari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berria indarrean sartu aurretik eskatutako gizarteratze errentak ukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek ondoko galdera egin du, Gizarte Gaietako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi ezagutu dugu Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salak emandako 000373/2013 epaia, zeinaren

bidez oinarrizko errenta aitortzen zaion Gizarteratze Errentaren Foru Lege berriaren arabera bazter utzitako pertsona bati; pertsona horren eskabidea lege hori indarrean sartu aurretikoa zen, eta, horrenbestez, eskubide bat atzeraeraginez ukatu zitzaion. Halaber, kostuak ordaintzeko zigorra ezarri zaio Nafarroako Gobernuari.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu:

1. Aurreko oinarrizko errenta eskatu eta Gizarteratze Errentaren Foru Lege berria indarrean sartzearen ondorioz ukatu zaien zenbat pertsonak aurkeztu dute errekurtsoa?

2. Gobernuaren aurreikuspenen arabera, zer kostu erator daitezke aipatu epaitik (bai kostuen ordainketatik bai ebazpen judizialaren mamitik)?

3. Gobernuak aurreikusi al du bere aurkako zenbat epai izan daitezkeen, ikusita aurkeztutako errekurtsoen kopurua, eta horrek zenbateko kostua ekarri ahal dion Administrazioari?

4. Zenbait pertsonak ez zuten errekurtsorik aurkeztu, baina, epaia ikusirik, oinarrizko errenta kobratzeko eskubidea izango zuketean. Gobernuak ba al du asmorik kasu horiek berrikusteko?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

10/2009 Foru Legearen II. tituluan ezarritakoaren arabera, jaso nahi dugu gaur egun Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten entitateen zerrenda.

Kokalekua, titulartasuna eta, kasua bada, Foru Administrazioarekin hitzarmenik baduten eta hura indarrean dagoen zehaztea nahiko genuke.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatiaren eraikuntzak Tafallako eta Nafarroako erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eraginari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatiaren eraikuntzak Tafallako eta Nafarroako erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Zer azterlan eta datu ditu eskura Nafarroako Gobernuak abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatia eraikitzeak Tafallako eta Nafarroaren erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eragin kaltegarriari buruz?

- Nafarroaren erdialdeko udalek, bereziki Tafallakoak, ba al dute horien berri?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutxaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer zuzemen egin ditu Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutxaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko?

Zertan dira zuzemen horiek?

Ba al du Nafarroako Gobernuak zerrenda edo inbentario xehakaturik, artelan horien kokalekua zehazten duenik?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako zerbitzburuei buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako zerbitzburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

1.- Ba al da Nafarroako Gobernuaren egiturari, edozein departamentutan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario ez den zerbitzbururik?

2.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario ez den zerbitzbururen batek parte hartu al du, parte hartzen ari al da edota aurreikusita al dago bere parte-hartzea langileak hautatzeko probaren batean –funtzionarioak, lan kontratadun finkoak edota aldi baterakoak–, oposizio epaimahairen bateko kide gisa?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

